

- **Bezeroarekiko harremana:**
- **Bezeroekiko harremana** Lehen aipatu bezala, etorkizunari begira gure produktuaren hobekuntzetan pentsatzen jarraituko dugu. Horretarako, lehendabiziko gauza, ezgaitasun fisikoren bat duen pertsona batek edota adineko pertsona batek gure dutxa bat erosi beharko du, eta beraien aurreiritzia kontuan hartuko dugu. Aholku horiek jaso ondoren, gure dutxaren hobekuntzan pentsatuko dugu. Hala ere, **erosotasuna, teknologia eta segurtasuna** gure dutxaren berezitasun nabarmenenak dira. Gainera, gure bezeroak ahalik eta hoberen zaindu ahal izateko, hilabetean behin, gure erizainetako bat haien etxera joango da. Hori esker, beraien egoera ikusi ahal izango dugu eta gure dutxaren erabilpen hobearentzako aholkuak jaso. Aurrez aurre egingo dira bisitak, kontziente garelako gure bezeroek teknologia berriekin (gmail, instagram, whatsapp..) zailtasunak izan ditzazketelako.



- **Bezeroaren integrazioa:** Gure negozioan integrazteko moduak asko dira, hori ez da kezkatzeko arrazoia. Hona hemen gurekin edo gure enpresarekin kontaktatzeko moduak:
 - ❑ **Aurrez aurre:** Gure enpresak kokapen industrialaz gain komertziala badu ere. Oringoz 4 denda ditugu, baina 2025 bitarte, dena pentsatu dugun bezala baldin badijoea 100 denda izatera iritsiko gara, eta ez bakarrik Espainian baizik eta Alemaniako eta Italiako enprekin aintzakotzat hartuko ditugu, eta toki bakoitzean 10 denda jartzea erabaki dugu beraiekin. Hori dela eta, gure bezeroek edo haien familiako kide bat, bizilaguna, lagun bat... joan al daiteke gure dendetara gure negozioan integrazteko.
 - ❑ **Ettxera goaz:** Gure bezeroen egoera kontutan hartuta, gure langileetako bat beraien etxera joango da. Baina horretarako, baimen bat behar dugu eta familiakoren bat edo lagun bat bertan egotea gomendatzen dugu. Horren helburua gure produktuaren berri izatea da.
 - ❑ **Telefonoz:** Gure bezeroak telefonoz hitz egiteko gaitasuna eta ezagutza badu, gurekin kontaktuan jartzeko erraztasun handiak izango ditu. Esaterako, gure dutxan “telefono” moduko tresna bat integratzen saiatuko garelako etorkizunari begira.

- ❑ **Mutu eta entzungor diren pertsonentzako:** Gure enpresak entzungor diren pertsonentzako abantaila ugari ditu, gure enpresak idazle ugari dituelako. Beraiek arduratzen dira dena azaltzeaz: aldizkarietan, diseinuan, dutxaren funtzioak egiteaz... gainera mutuentzat eta entzungorrenzat gure langiletako askok zeinu hizkuntza dominatzen dute. Horrela gurekin komunikatzeko erraztasuna izango dute. Gainera gure dutxak badu **itsuak diren pertsonentzako** zenbait baliabide.

